



BILERA-AKTA. ELKARRIZKETA ZIBILERA KO MAHAIA. 2015/10/07
ACTA SESIÓN 07/10/2015: MESA DEL DIÁLOGO CIVIL

Partehartzaileak:

KARGUAGATIKO KIDEAK

- ANGEL TOÑA GÜENAGA jauna, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua
- LIDE AMILIBIA BERGARETXE andrea, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Politiketako sailburordea

KIDEAK:

- JOSÉ LUIS MADRAZO JUANES jauna, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendaria.
- MIGUEL ÁNGEL HURTADO PEDROSO jauna, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzako lege-aholkularia.
- ANA ARRIOLA andrea, CONGDE ordezkatzuz, Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundea
- MANUEL MORENO jauna, EAPN Euskadi ordezkatzuz, Pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurkako europar sarea Euskadin
- PABLO MORATALLA SANTAMARIA jauna, EHLABE ordezkatzuz, Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkarte
- MIKEL MALKORRA OTXOTORENA jauna, ELKARTEAN ordezkatzuz, Euskal Autonomia Erkidegoko Desgaitasun Fisiko eta Organikoa duten Pertsonen Konfederazioa
- M^a JOSE CANO MESÍAS andrea, FEDEAFES ordezkatzuz, Gaixotasun mentala dutenen eta haien senideen elkarte Euskadiko Federazioa
- TXEMA ODRIOZOLA AZURMENDI jauna, FEDERPEN ordezkatzuz, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarte Lurralde Federazioa
- PABLO GONZÁLEZ GUTIÉRREZ jauna, FEVAS

ordezkatuz, Adimen-urritasuna dutenen aldeko elkarteetako Euskal Federazioa

- ESTEBAN RIVAS CALZADA jauna, GIZATEA ordezkatzuz, Gizarteratzeko eta laneratzeko Euskadiko enpresen elkarte
- SUSANA CUESTA MANJÓN andrea, HARRESIAK APURTUZ ordezkatzuz, Etorkinen aldeko Euskadiko GKEen koordinakundea
- IÑIGO VIDAURRAZAGA VIDAL jauna, HIREKIN ordezkatzuz, Euskadiko gizarte-ekimeneko eta esku hartzeko entitateen elkarte
- NATALIA DIEZ-CABALLERO ALONSO andrea, HIRUKIDE ordezkatzuz, Euskadiko familia ugarien elkarte federazioa
- MANUEL MERINO PASTOR jauna, LARES Euskadi ordezkatzuz, Adinekoen egoitza eta arreta-zerbitzuen euskal elkarte – sektore solidarioa
- JAVIER DOMÍNGUEZ ENTENZA jauna, ONCE ordezkatzuz, Espainiako itsuen erakunde nazionala
- GONZALO RODRIGUEZ AGIRREGOITIA jauna, REAS EUSKADI ordezkatzuz, Ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea

GONBIDATUAK:

- EMILIO SOLA BALLOJERA jauna, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria
- JUAN IBARRETXE KARETXE jauna, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Prestakuntza eta Diru-sarreraren Bermeko zuzendariak
- MIREN GOTZONE SAGARDUI GOIKOETXEA andrea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Lan Aktibazioko zuzendaria.
- XABIER AIERDI URRAZA jauna, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko aholkularia
- MIKEL BARTUREN NUÑO jauna, SAREEN SAREA ordezkatzuz.

Lekua:

LAKUA II – Gela 6

Eguna:

2015\10\07 asteazkena

Ordua:

12:00 - 13:45

Gai-zerrenda: Gai bakarra.– Lehendakariaren eta Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko kideen hitzaldiak.

Hizkuntza: Gaztelania

Bilkura 2015eko urriaren 7an, eguerdiko 12:00etan hasi da.

Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren presidente Gonzalo Rodriguez Agirregoitia jaunak ongietorria eman die Lehendakariari, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuari, Gizarte Politiketako sailburuordeari eta Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko gainerako kideei.

Ondoren, lan-saioaren gai-zerrendako puntu bakarrari heldu aurretik, hitz hauek esan ditu, hemen hitzez hitz jasotzen direnak:

« Elkarrizketa Zibilerako Mahaitik, eskerrak eman nahi dizkiogu, lehenik eta behin, Lehendakariari, ezohiko saio honetan parte hartzeko gonbidapena onartu duelako.

Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gorena hemen izateak esanahi berezia du foro honetan, are gehiago uneak berebiziko garrantzia duenean, legebiltzarreko tramitazioan egonik Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko Legearen proiektua. Lege horren helburua marko juridikoa eta arautegia eskaintzea da, eta gizarte-ekimenak erkidegoaren ongizateari egiten dion ekarpen historikoaren aitortza adierazten du.

Hirugarren Sektorearen Bizkaiko Behatokia osatzen ari den Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen Liburu Zuriaren zirriborroak jasotzen dituen behin behineko datuek erakusten dute Euskadiko Hirugarren Sektorearen nondik norakoa.

Erakundeen kopurua	3.500 erakunde
Boluntarioen kopurua	125.000 boluntario
Enplegatutako pertsonen kopurua (lanaldi osoko edo partzialekoak)	36.000 pertsona enplegatuak (EAEen lanean ari diren pertsonen % 4)
Mugiarazten dituen baliabide ekonomikoak	1.451 milioi euro kudeatuak
EAEko BPGari egindako ekarpena	EAEko BPGaren % 2,2

Elkarrizketa Zibilerako Mahaia Hirugarren Sektore Sozialak Euskal Autonomia Erkidegoan duen kontsulta eta parte-hartze instituzionalerako organorik gorena da. Haren eginkizuna da Eusko Jaurlaritzaren eta herritarren ekimenaren arteko solaskidetza sustatzea eta erraztea, gobernantza klabea, politika publikoen diseinuan eta gauzatzean egiazko eragina izango duten adostasunak eraiki ahal izateko, eta era horretan, pertsonen ongizatea hobetu eta gizarte inklusiboago bat lortzeko.

EAEko gobernuburu zaren aldetik, helarazi nahi dizugu, gure sektorearen ikuspegitik, behar-beharrezkoa dela Hirugarren Sektore Sozialaren eta Eusko Jaurlaritza osoaren arteko harremana eta ezinbesteko lankidetzari balioestea.

Izan ere, ongizatea eta gizarte-inklusioa helburu duten gizarte-politiken eta erantzukizun publikoko sistemen arloan hitzarmenak lortzeko elkarrizketan aurrera egin behar bada ere, are erabakigarriagoa da elkarrizketa ez mugatzea gizarte-zerbitzuetara eta enpleguaren sustapenera, eta hedatzea gizarteko esku-hartzearekin lotura duten beste arlo batzuetan, besteak beste etxebizitza, hezkuntza, osasuna eta justizia.

Herri Administrazioaren eta Hirugarren Sektore Sozialaren arteko lankidetzak-mekanismoak indartzeko dei hau gizarte-zerbitzuak herritar guztien eskura jartzeko bi sektore horiek duten protagonismotik harago doa. Hirugarren Sektore Sozialak biltzen dituen beste elkarte, fundazio eta erakundeak gizarte zibilaren, boluntarioen eta arazo desberdinei aurre egiten dieten pertsonen kolektiboen parte-hartzerako bideak dira. Gizarte-ekimena sustatzeak eta herri administrazioarekiko lankidetzak bultzatzeak gizartearen ardaztura indartzen du eta demokrazia aurreratuko eta gobernantza partekatuko eredu bat adierazten du.

Elkarriketa Zibilerako Mahaitik espero eta desio dugu hurrengo legea eta Gobernuaren ekintza bera lagungarriak izatea Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala eta hura osatzen duten sareak eta erakundeak ardazteko eta indartzeko, gizarte-ekimen antolatua sustatzeko tresnak eta politikak garatuz eta haien finkapena, jasangarritasuna eta egonkortasun finantzaria erraztuz.

Eskerrik asko»,

Ondoren, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari eman dio hitza, eta haren hitzaldia hasi da esanez hirugarren sektore soziala aktibo bat izatea garrantzi handikoa dela gizartearentzat, erakundeak ezinbestekoak direlako gizarte justuagoa, parte-hartzaileagoa eta kohesionatuagoa lortzeko.

Eusko Legebiltzarrean izapidetzen ari den Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko Legea ere aipatu du, haren egokitasuna azpimarratuz, hirugarren sektore soziala osatzen duten erakundeak eta haien ezaugarriak identifikatzeko aukera emango duelako, aldi berean, hirugarren sektore sozialaren eta herri administrazioaren arteko elkarriketarako eta lankidetzarako tresnak finkatuz.

Elkarriketa Zibilerako Mahaiko presidenteak, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren hitzak eskertu ondoren, Lehendakari jaunari eman dio hitza. Lehendakaria hasi da esanez bera entzutera etorri dela Elkarriketa Zibilerako Mahaira, eta era berean, eskertu nahi duela herri administrazioarekin lankidetzan aritzeko gogoak, kritikatik bada ere, baina lankidetzan aritzeko gogoak.

Hitzaldian azpimarratu du ondo antolatutako herri administrazioak herritarren zerbitzu publiko hobeak ekartzen dituela, eta nabarmendu nahi izan du hirugarren sektore sozialaren interesak partekatuak direla (pertsonen bizi-kalitatea hobetzea, gizarte-inklusioa erraztea, beharrik handienak dituzten pertsonen eta familien eskubideen egikaritzea egiazkoa bermatzea, etab.); izan ere, hala erakusten du Eusko Jaurlaritzaren laneko lema («pertsonen konpromisoa»), eta horrek lan partekatua eskatzen du, era horretan finkatzeko gardentasuna, pluraltasuna, lankidetzak, hitzarmenak...

Azkenik, gizarteko esku-hartzea orientatu behar dela eta gizartearen eraldaketa errealitateak sustatu behar dela esan du.

Ondoren, Elkarriketa Zibilerako Mahaiko Presidenteak eskerrak eman dizkio Lehendakariari haren hitzengatik, eta gai-zerrendako puntu bakarrari heldu dio, hemen jasotzen den moduan:

PUNTU BAKARRA.– LEHENDAKARIAREN ETA ELKARRIZKETA ZIBILERA KO MAHAIKO KIDEEN HITZALDIAK.

Gonzalo Rodríguez Agirregoitia jaunak azaldu du Elkarrizketa Zibilerako Mahaian dauden sare eta erakunde bakoitzak hitz batzuk egingo dituela beren lanak, helburuak eta proposamenak azaltzeko.

Ondoren, Elkarrizketa Zibilerako Mahaian dauden hirugarren sektore sozialeko sare eta erakundeek hitzak jaso ditugu, hitza hartu duten hurrenkeran.

1. CONGDE, garapenerako GKEen Euskadiko koordinakundea.

CONGDEren ordezkari ANA ARRIOLAK eskertu dio, lehenik eta behin, Lehendakariari etorri izana, eta ondoren balioetsi du sortu den kultura demokratikoa, hitzartzeko espazioak zabaltzeko, eta azpimarratu du beharrezkoa dela sistemak ahotsa kendu dien pertsonen alde lan egitea, eta ahotsa berriz ematea, garapen jasagarriko estrategietan parte har dezaten, eta horretarako elkarrizketaren beharra aldarrikatu du.

Bestalde, sortutako arrakala salatu du, aberastasunaren % 0,7 kanpoko lankidetzarako emateko helburuan murrizketek eragindakoa. Hala ere, lankidetzaren sektorea lankidetzaren prozesu betean ari dela azpimarratu du, eta hiru gai gako eztabaidatu eta landu behar direla aldarrikatu du.

- nazioarteko lankidetzarako eredu berri bat.
- lankidetzarako erakundeek defentsa egitea irabazi asmoko erakundeek mende irabazi asmorik gabeko erakundeek aurrean.
- Euskal Autonomia Erkidegoan lankidetzari buruzko komunikazio eta hedapena handiagoak egitea, eta konfrontazio-diskurtsoei aurre egiteko helburua duten esku-hartzei indarra ematea.

2. FEDERPEN, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarteetako Lurralde Federazioa.

FEDERPEN elkartearen ordezkari TXEMA ODRIOSOLA AUZMENDI jaunak, Lehendakariari etortzeagatik eskerrak eman ondoren, eta bere hitzaldia egiteko denbora gehigarria eskatuz, han daudenetatik zaharrena dela argudiatuta, bere hitzaldia egin du, eta akta honekin batera atxiki da, I. eranskin gisa.

3. LARES Euskadi, Adinekoen egoitza eta arreta-zerbitzuen euskal elkarte – sektore solidarioa.

LARES Euskadiko ordezkari MANUEL MERINO PASTOR jaunak, Lehendakariari etortzeagatik eskerrak eman ondoren, hitzaldia egin du, akta honekin batera atxiki dena, II. eranskin gisa.

4. ELKARTEAN, Euskal Autonomia Erkidegoko Desgaitasun fisikoa duten pertsonen elkartearen konfederazio koordinatzailea.

ELKARTEAN konfederazioko Mikel Malkorra Otxotorena jaunak, Lehendakariari etortzeagatik eskerrak eman ondoren, hitzaldia eman du, akta honekin batera atxiki dena, III. eranskin gisa.

5. FEVAS, Adimen-urritasuna dutenen aldeko elkarteetako euskal Federazioa.

FEVAS elkartearen ordezkari PABLO GONZÁLEZ GUTIÉRREZ jaunak, Lehendakariari etortzeagatik eskerrak eman ondoren, hitzaldia eman du, akta honekin batera atxiki dena, IV. eranskin gisa.

6. FEDEAFES, Gaixotasun mentala dutenen eta haien senideen elkartearen Euskadiko Federazioa.

FEDEAFES elkarteko ordezkari M^a JOSÉ CANO MESÍAS andreak, Lehendakariari etortzeagatik eskerrak eman ondoren, labur azaldu du haien erakundea dela gaixotasun mentala dutenen eta haien senideen EAEko elkarteak biltzen dituen erakunde bat (hain zuzen ere, honako hauek AGIFES Gipuzkoan, ASAFES Araban ASASAM Laudion eta Aiala eskualdean, eta AVIFES Bizkaian), guztira 3.000ren bat familia elkartzen dituen eta 9.000 pertsona inguru ordezkatzeko dituen; adierazi duenez, elkarteek herritarren parte hartzerako guneak eskaintzen dituzte eta kalitateko zerbitzuak ematen dituzte.

Bestalde, adierazi duenez, buruko gaixotasuna duten pertsonen elkartearen federazioan bildutako elkarte-mugimenduaren ardatz nagusiak dira, alde batetik, buruko gaixotasuna duten pertsonak berak, beren bizi-proiektuaren protagonistak izan behar dutelako, eta bestetik, familiak, funtsezkoa baita familiaren eginkizuna eta buruko gaixotasuna duten pertsonen laguntza ematea, eta haien familiei ere bai; izan ere, buruko gaixotasuna duten pertsonen % 80 beren familiekin bizi dira. Ildo horretatik, kontuan hartu behar da familia hauek beren zaintzarekin eta laguntzarekin egiten duten ekarpenak baliabideen gastuaren aurrezpena eragiten diola sistema soziosanitarioari, eta horregatik azpimarratu du beharrezkoa dela haiei laguntzea.

Ondoren, azaldu du elkarte horiek sortu zirela administrazio publikoetan eskas zirelako buruko gaixotasuna zuten pertsonen arreta emateko gizarte-politikak eta ekintzak; horretarako, pertsona horien bizi-kalitatea hobetzeko eta haien egoeratik jasan behar izaten duten bazterketa ezabatzeko helburua duten politikak abiarazi, sustatu eta hedatu behar dira; ildo horretatik, azpimarratu du funtsezko protagonismoa izan behar dutela gaixo horiek eta haien familiarrek, kolektibo horri begira eratzen diren politiken ezarpenean. Buruko gaixotasuna duten pertsonen oraindik ere jasan behar izaten duten gizarte-bazterketarekin lotuta, lanean hasteko zailtasun are gehiago ekartzen dizkiete eta, gogora ekarri du orain urtebete dela FEDEAFESek elaboratu zuela, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, *EAEen buruko gaixotasuna duten pertsonen estigmaren errealitateari buruzko ikerketa*. Lan hori egiteko ia 200 pertsonaren gogoetak bildu zituzten, tartean hainbat sektoretako profesionalak eta gaixoak, haien helburua zirela buruko gaixotasuna duten pertsonen gizarte-inklusioa eta komunitate-partaidetza normalizatzea.

Ikerlan horren emaitzak ikusita, hizlariaren hitzetan, gizartearen estigmak pertsona horien eta haien familien bizitzan dituen ondorioak eta inplikazioak nabarmenak dira, bizi-kalitatearen arlo desberdinetan eta komunitateko partaidetzaren eta garapenaren eremu guztietan. Gainera, egoera hori gainditzeko proposamenak aurkezten ditu eta, horregatik, politika transbertsalak aldarrikatzen ditu, non sail eta administrazio publiko desberdinek parte hartuko duten, estigma pertsona horien bizimoduaren arlo guztietan ageri delako – hezkuntza, enplegua, etxebizitza, aisialdia, osasuna, etab.—.

Horri erantsi dio buruko gaixotasuna duten pertsonen sektorea dela enplegua lortzeko zailtasunik handienak dituen, eta horregatik aldarrikatu ditu buruko gaixotasuna duten pertsonen enplegua lortzeko dituzten aukerak sustatzeko ekintza positiboak.

Azkenik, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari eskertu dio hainbat ikerlan egiteko emandako laguntza, hala nola buruko gaixotasuna duten pertsonen kolektiboarekiko erakutsitako sentiberatasuna ere, baina azpimarratu du beharrezkoa dela enplegu inklusiboan jarraitzea lanean, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuk ukitzen dituzten lan-eremuetatik.

7. ONCE, Espainiako itsuen erakunde nazionala.

ONCEren ordezkari JAVIER DOMÍNGUEZ ENTENZA jaunak, Lehendakariari etortzeagatik eskerrak eman ondoren, gogora ekarri du ONCE elkarteak instituzioen eta gizartearen ezagutza eta aitortza ere badituela, orain dela 8 hamarkadatik hona itsutasuna edo ikusteko desgaitasun handia duten pertsonen alde egiten duen lanagatik, eta munduan ez dagoela haren pareko elkarterik.

Ondoren azaldu du haien antolatzeko eta lan egiteko ereduak berezko ezaugarriak dituela, eta hor azpimarratu du administrazio publikoekiko lankidetzaren bidez hainbat eginkizun publiko bere gain hartzeko aukera izan dutelako, zenbait ordezkartzaren bitartez, administrazio publikoen maila desberdinetan, alegia, tokiko, autonomia erkidegoko nahiz estatuko esparru-akordio edota lankidetzaren bidez artikulatuta.

Pertsona itsuek mugikortasunaren eremuan dituzten zailtasunak gainditzeko neurrien beharra azpimarratu zuen, arlo horretan asko baitago egiteko gai askotan, esaterako garraio publikoan, hirietan sartzeko irisgarritasunean, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien eremuan; azken horri dagokionez, aldarrikatu nahi izan du, bizi dugun teknologiararen aro berrian, informazioaren teknologia berrien aprobetxamendua aukera gisa ikusi behar dela, zentzumenen desgaitasunak dituzten pertsonen gizarteratzea errazteko, eta ez irisgarritasunaren traba bezala.

Horrekin batera adierazi du beharrezkoak direla zentzumenen desgaitasuna duten pertsonak kontuan hartzen dituzten politika publikoak, eta halaber, beharrezkoa dela, zerbitzu publikoen prestazioan, atal bat izatea itsutasuna duten pertsonentzat eta beste atal bat itsutasuna ez diren gainerako zentzumen-desgaitasunak dituzten pertsonentzat.

Azkenik, gogora ekarri du ONCE joko-operatzaile bat dela, zentzumenen desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzuak eta enpleguak mantendu nahi dituen eta, ildo horretatik, haren berezitasuna aitortzeko eskatuz amaitu du bere hitzaldia.

8. EHLABE, Euskadiko Lan Babestuaren Erakunde Elkarte.

EHLABE elkarteko ordezkari PABLO MORATALLA SANTAMARIA jaunak, Lehendakariari etortzeagatik eskerrak eman ondoren, bere hitzaldia eman du, akta honekin batera atxiki den V. eranskinean jaso dena.

9. HARRESIAK APURTUZ, Etorkinen aldeko Euskadiko GKEen koordinakundea.

HARRESIAK APURTUZ elkartearen ordezkari SUSANA CUESTA MANJÓN andreak, Lehendakariari etortzeagatik eskerrak eman ondoren, hitzaldia hasi du azalduz berak ordezkatzan duen erakundean 62 erakunde biltzen direla, EAEko Lurralde Historiko guztietakoak, gehienak Bizkaian kokatutakoak badira ere.

Ondoren, erakundearen lan-ildoak azpimarratu zituen, ondoko hiru hauetan ardaztuta:

- sareko lana indartzea eta sustatzea, hiru Lurralde Historikoetako erakunde desberdinen arteko lana koordinatzeko formak bilatuz.
- immigrazioaren eta asiloaren inguruko pentsaera kolektiboan eragitea.
- immigrazioaren eta asiloaren inguruko politika publikoetan eragitea.

Hain zuzen ere, politika publikoen inguruko kezka azaldu zuen, eta Eusko Jaurlaritzari gogoeta egiteko eskatu zion, behar hauen inguruan:

- Euskadiren pluraltasuna kontuan hartuko duten inklusio-politikak hartu behar dira, eta EAEn bizi diren pertsona guztiei eskubide eta betebeharrak eman behar zaizkie, haien jatorria edozein dela ere.
- abiarazten diren politikek aniztasunaren kudeaketa eta elkarbizitzaren sustapena lehenetsi behar dituzte, eta jokabide xenofobo eta arrazistak erauziko dituzten mekanismoak artikulatu behar dituzte.
- asiloaren gaia ez erabiltzea hauteskunde-helburuekin, horrek etorkinei kalte handiagoa eragiten baitie, gizarteratzeko zailtasunak eragiten dizkieten estereotipoen gainetik ere.

10. GIZATEA, Gizarteratzeko eta laneratzeko Euskadiko enpresen elkartea.

GIZATEA elkartearen ordezkari ESTEBAN RIVAS CALZADA jaunak, Lehendakariari etortzeagatik eskerrak eman ondoren, bere hitzaldia eman du, akta honekin batera atxiki den VI. eranskinean jaso dena.

11. REAS EUSKADI, Ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea.

REAS EUSKADI erakundearen ordezkari GONZALO RODRIGUEZ AGIRREGOITIA jaunak, Lehendakariari etortzeagatik eskerrak eman ondoren, bere hitzaldia eman du, akta honekin batera atxiki den VII. eranskinean jaso dena.

12. EAPN Euskadi, Euskadiko pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko Europako Sarea.

EAPN Euskadi erakundearen ordezkari MANUEL MERINO PASTOR jaunak, bere hitzaldia egin du, akta honekin batera atxiki dena, VIII. eranskin gisa.

13. HIRUKIDE, Euskadiko familia ugarien elkarteen federazioa.

HIRUKIDE erakundearen ordezkari NATALIA DIEZ-CABALLERO ALONSO andreak, eskerrak eman dizkie Lehendakariari eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko gainerako ordezkariari etortzeagatik, eta ondoren azaldu du HIRUKIDE erakundeak EAEn 25.000 familia inguru ordezkatzan dituela (familia guztien % 40 inguru), alegia, 125.000 pertsona inguru, eta berak ordezkatzan duen erakundearen konpromisoa eta prestasuna

azaldu ditu, Eusko Jaurlaritzarekin eskuz esku lan egiteko familiei buruzko politiketan, funtsezko bi erronka aurkezten direla adieraziz:

- seme-alabak beren kargu dituzten familien beharrei erantzuna ematea.
- zailtasun ekonomikoengatik edo familiako eta laneko bizitza bateratzeko zailtasunengatik seme-alabarik izan ez dezaketen familien arazoei erantzuna ematea.

Gogora ekarri du EAEko jaiotze-tasa Europako baxuena dela, eta egoera horrek kezkatzen dituela eta kezkatu behar dituela instituzio publikoak, neurri handi batean populazioaren desoreka demografikoagatik, gizartea era progresiboan zahartzen ari delako, eta horrek garapenerako zailtasunak ekarriko dituelako aurrera begira, eta pentsioen sistema mantentzea zailduko duela; horren ondorioz, etorkizunean EAEko langileek % 30 gehiago kotizatu beharko dute.

Horiek aintzat hartuta, haren aburuz lehenbailehen heldu behar zaio familiei laguntzeko neurriak jartzeari, eta hain zuzen ere, familiei antolatzea eta beren proiektua askatasunez garatzea galarazten dieten trabak kentzeko modua ekarriko duten politika inklusiboak lehenetsi beharra azpimarratu du.

Ondoren, foru-aldundien nahiz Eusko Jaurlaritzaren aldetik beraiekin lankidetzan aritzen direnen harreman pertsonal adeitsua eskertu du.

Beste alde batetik, planteatu du Eusko Jaurlaritzako gainerako sailetara eta gainerako administrazio publikoetara zabaldu behar dela familientzako laguntza-programetan aplikatzen den familiako errenta estandarizatuaren irizpidea, zerbitzuak eta laguntzak eskuratzea errentaren irizpideak baldintzatuta dagoen kasu guztietan ezarri ahal izateko.

Azkenik, gogora ekarri du Familiaren Euskal Estrategia antolatzeko ikerlan bat egina dagoela, eta hura onartu beharra dagoela aldarrikatu du, politika familiarretan koordinazio handiagoa eratzeko eta eremu horretan ikuspegi estrategikoa eta transbertsala ezarri ahal izateko. Horretarako, haren esanetan, Gizarte Itun baten modura eratu beharko da, bertan bilduz Eusko Jaurlaritza, gainerako herri administrazioak, sindikatuak, patronala eta erakundeak, izan ere, horrek emango dio sendotasuna eta irauteko gaitasuna, familiaren auzietan ez daitekeelako gobernatu begirada hurrengo 4 urteetan soilik jarritz.

14. HIREKIN, Euskadiko gizarte-ekimeneko eta esku-hartzeko entitateen elkartea.

HIREKIN erakundearen ordezkari IÑIGO BIDAURRAZAGA VIDAL jaunak, Lehendakariari eta Enpleguako eta Gizarte Politiketako Saileko gainerako ordezkariari etortzeagatik eskerrak eman dizkie, haiek hona etortzeak finkatzen duelako hirugarren sektore sozialaren eta Eusko Jaurlaritzako erakundearen arteko lankidetzaren ideia; ildo horretatik, haren iritziz, garrantzitsua izango litzateke Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuetako ordezkariak ere hona etortzea.

Aurrekoak esanda, HIREKIN, Euskadiko gizarte-ekimeneko eta esku-hartzeko entitateen elkartea dela azaldu du, lurraldeko hiru elkarte biltzen dituen (bana Lurralde Historiko bakoitzeko), guztien artean enpresaburuen 80 elkartetik gora ordezkatzeko dituztela (tartean direla elkarteak, fundazioak, gizarte-ekimeneko kooperatibak, etab.), bertan bildu eta ordezkaturik daudelarik eremu horretan aritzen diren gizarte-ekimeneko erakundeetako 3.000 profesional eta milaka boluntario.

Horiek horrela, erakunde horien guztien ordezkaritza egikaritzen du HIREKINek, herri administrazioen nahiz gizarte-eragileen aurrean, bere lana gai hauetan zentratuz:

- EAE osorako lan-baldintza bateratuak bultzatzea, lurralde eta sektore guztietan, onargarriak eta erantzukizun publikoaren mendeko beste jarduera-eremu batzuetakoekin homologagarriak.
- herri administrazioen eta hirugarren sektore sozialaren arteko lankidetzaz sustatzea, erantzukizun publikoko zerbitzuen aurreikuspena (ez prestazioa) egiteko, ordezkatzeko dituen elkarteak direlako zerbitzuen sustatzaile, diseinatzaile eta are prestazio-emaileak ere, eta ez hornitzaile hutsak, eta ezin ukatu direlako erakunde horien ibilbidea errealitatea eta potentzialtasuna.
- sektore honi ematea gainerako jardura ekonomikoko sektoreen aitorpena, eragiten duelako enpleguan, egituren sustapenean, berrikuntzan, euskalduntze-lanean, inbertsioetan...
- gizarte-zerbitzuei buruzko arautegi-garapena (Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzko Dekretua, Itunei buruzko Dekretua, Enplegu Legea, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko Legea, EAEko kontratuen Legea, etab.) eta arautegi horiek eta beste zenbait arautegi defendatzea estatu mailan.

Elkarriketa Zibilerako Mahaian daude erakunde guztien hitzaldiak amaituta, Mahaiko presidentek hitza eman dio Lehendakariari. Hark, aurreko hitzaldi guztiak laburbildu ondoren, bakoitzak adierazitako kezka eta eskakizunak azpimarratu ditu eta gonbidapena luzatu die lankidetzan aritzeko modu kritikoan, baina lankidetzan betiere, herritarren ongizatea hobetzeko helburuz, izan ere, Lehendakariak nabarmendu duenez, Mahaian dauden guztien helburua baita bizi-kalitatea, justizia soziala eta gizarte-inklusioa hobetzea.

Amaitzeko, azpimarratu zuen, «gizarteak parte hartu behar duela, berez hala baitagokio kultura demokratikoari, eta guztion artean lan egin behar dugula».

Azkenik, Elkarriketa Zibilerako Mahaiko presidente Gonzalo Rodríguez Agirregoitia jaunak hartu du hitza, eta batzarra amaitutzat eman aurretik, nabarmendu nahi izan ditu erakundeek aipatu dituzten erronken ugaritasuna eta hitzaldietan agertu diren errealitateen aniztasuna ere, horiek guztiek, haren iritziz, baliagarriak izango direlako Elkarriketa Zibilerako Mahaiak etorkizunean egin beharreko lan-ildoak finkatzeko eta abian jartzeko.

Eta beste gairik ez dagoenez, Elkarriketa Zibilerako Mahaiko presidentek adierazi du saioa amaitu dela, 13:45 direla.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriaren 14a.

O.E.:

Gonzalo Rodríguez Agirregoitia jauna
Elkarriketa Zibilerako Mahaiko presidentea

Miguel Ángel Hurtado Pedroso jauna
Elkarriketa Zibilerako Mahaiko idazkaria.

I. ERANSKINA TXEMA ODRIUZOLA AZURMENDIREN HITZALDIA, FEDERPEN ERAKUNDEA

Federazioaren antolaketa: Nor gara, non gaude eta nor ordezkatzten dugu?

Federazioaren estatistika

Lurraldea	2013 Bazkideak	2013 Zentroak	2014 Bazkideak	2014 Zentroak	Igoera
Araba	33.823	23	37.117	23	% 5
Gipuzkoa	35.530	70	37.120	71	% 11
Bizkaia	48.720	137	51.036	139	% 6
Guztira	118.073	230	125.273	233	% 1

Antolatutako mugimendurik handiena.

Federazioaren helburuak:

Hirugarren sektoreko sareetako kideak gara. Eusko Jaurlaritza ordezkatzten dugu adineko pertsonen Estatuko Kontseiluan eta Age Bruselan eta 8 argazki gehiagotan.

Haren helburua gizarteko esku-hartzearen eremuan kokatu daiteke. Adineko pertsonen arreta eta babeserako jarduerak egiten ditu. Haien eskubideak defendatzen ditu Europako Gizarte Gutunaren erreferentziak hartuz, batez ere mendekotasun-egoeran dauden adineko pertsonen arretari eta babesari dagokienez.

Gure bazkideen ahalduntzea sustatzen saiatzen gara, eta horretarako lan egiten dugu adineko pertsonekin, gaitasunik egokienak landu ditzaten eta, ahal den neurrian, beraiei dagozkien gaietan beren erabakiak har ditzaten.

Horregatik gaude, eta hala egon nahi dugu, gure eremuan eragina duten gaiak erabakitzen diren elkarrizketa zibileko foro guztietan, hau delarik federazioaren politika iraunkorra.

3.1. Adineko pertsonak Federazioarentzat

Erronka berri bat dugu aurrean: bizi-luzeraren iraultza bihurtzea ekonomiarentzako aukera. Estereotipo txarrak baztertu behar dira eta datorrenari aurre egiteko prestatu behar dugu.

Kontuan hartzeko datuak:

Nazio Batuen txostena: Haren aurreikuspenen arabera, 60 urtetik gorakoak herritarren % 27,4 izango dira 2025ean eta % 32,3, berriz, 2050ean. (Handiagoa da 65 urtetik gorako populazioa 15 urtetik beherakoa baino).

Euskadiko datuak:

Biztanleria 2013an: 2.191.680

55 urtetik gorako pertsonak: 725.789 (guztizkoaren % 33).

80 urtetik gorako herritarrak: 139.000 lagun

65 urtetik gorakoen heren bat 80 urtetik gorakoak dira.

Beste hainbat datu:

Zahartze-indizea (Europarra eta NBE)

Indize globala (gaitasuna, gizarteko parte-hartzea...): 30 Herrialde

Euskal Autonomia Erkidegoa: 36,30 puntu: 7. postua

Estatua: 32,8 puntu: 18. postua

Gizarteko parte-hartzea: boluntario-lana, seme-alaben eta adinekoan zaintza, parte-hartze politikoa.

Euskal Autonomia Erkidegoa: 21 puntu: 9. postua (Estatua 15. postuan)

Eusko Jaurlaritzaren eta instituzioen aitortza: Sailaren politika sozialak eskertzen ditugu, eta haien artean, 100 proposamen, etxean ondo, zahartze aktiboko estrategiak (zehaztu beharko direnak), gizarte-zerbitzuen zorroa eta Euskadi *lagunkoia*.

Osasun Sailari eskertzen diogu 2015-2020 osasun-plana, adinekoentzako atal berezia jasotzen duena. Kronikotasunaren euskal batzordea eta hura ondo garatzea eta adinekoentzako lehen arretako zerbitzuak sendotzea. Plan soziosanitarioa, bi Sailak lotzen dituen eta funtsezko gai bat koordinatzen duena.

Aktiboak gara eta ez pasiboak, adineko pertsonen aitortu behar zaie herritartasun osoaz gozatzeko eta gure gizartean modu integralean parte hartzeko eskubidea.

Adinekoen artean bizi gara, elkarbizitzan, gizartean elkarrekin, bertan parte hartzen dugu (15 urtez batez beste), ekarpen handia egiten diogu haren egonkortasunari, ekonomiari, kohesioari, eta boto-emailerik fidelenak gara.

Mari Angeles Duran katedratikoak, 2014an argitaratu zuen “Adineko pertsonak Euskadiren ekonomian” liburuan jasotzen ditu familientzako dirulaguntzak edo inpaktu handiko zaintzaren ekarpena (BPGaren 1/3 zaintza), eta zahartzeko bidean diren adinekoentzako produktu eta zerbitzuen ekonomia grisa. Gizartearentzako beste edozein sektore bezain baliagarriak gara (beharrezkoak esan liteke), eta bestela, galde iezaiezue guraso gazteei. Zuen ustez, zenbat urtez iraungo luke mende baldeko gizarteak, aiton-amonik gabe? Zenbateko ekarpena egiten diogu kontsumoari? Gogoratu behar da kontsumo hori mantentzen dela guk lehen ekoitzi eta oraindik ere ekoizten dugunarekin.

Eskariak:

Adineko pertsonen ordezkartza handiagoa eta hobe eskatzen dugu bizitza politikoan, lurralde-eremu guztietan, parte hartze aktiboagoa lortzeko Euskadiren garapenean. Zahartzen diren pertsonen erabakiak hartzeko prozesuetan duten ordezkartza eredu berritua formulatu behar da, adinekoen erakunde eginkizuna indartuz. Adineko pertsonen garapen integrala, pertsonala nahiz soziala, erraztu behar da, bizitzaren aldi horretan.

Gure aldarrikapena: Adinekoen Kontseilua ahalduz ere

Lotura.- Ez da ulertzen sektoreko Kontseilua lotuta egotea gizarte-zerbitzuen Euskal Kontseiluari, hango 42 kideetatik bakar batek (Federpen) ordezkatzeko dituen adineko pertsonak. Nire ustez, adinekoen kolektiboak, populazioaren % 20 izanik (415.000 lagun), egiaz aintzat hartu izan behar du, kontuan hartuta foru-aldundietan funtzionatzen dutela loturarik ez duten beste kontseilu batzuk, eta beharrezkoa da politikak koordinatzea. Haien erregelamendua eraberritu beharko litzateke eta hori izango litzateke hurrengo legealdian lehenetsi beharreko lanetako bat.

Badira aurrekari asko. Autonomia-erkidego askotan badira adinekoen kontseiluak, hemen azaldu dugun filosofian oinarrituta. Gipuzkoan eta Bizkaian badira adineko pertsonen osatu eta beraiek zuzentzen dituzten kontseiluak. Autonomia-erkidegoaren mailan, ordea, ez dugu egiazko ordezkartza-erakunderik.

Arrazoiak: Eusko Jaurlaritzak onartutako zahartze aktiboko planean jasotzen dira:

- Euskadin gizarteko eta antolakuntzako aldaketa sustatzea, biztanleriaren egiturarekin eta zahartzen ari diren pertsonen gizarte horretan duten rolaekin bat datorren gobernantza-eredua garatzeko, bai politika publikoen alorrean, bai arlo pribatuan.
- Sail-arteko organo baten sorrera bultzatzea, transbertsalitate hori bermatuko duena, gizartea hobeto egokitzeko zahartze-prozesuari begira, gai hori ageri den ekimen guztien koordinazioa eginez. Integratu beharreko politikak, gizarte eta osasun sailerako hitzorduak alde batera utzita, etxebizitza-plan berezi bat, garraioetako erabilgarritasuna hobetzea, Barne Saileko segurtasun politikak (tratu txarrak, lapurretak), Hezkuntzan, bizi osoko prestakuntza eta teknika digitalak.

Xedeak: EAEko Adineko Pertsonen Kontseiluaren xedea da adineko pertsonen parte-hartzeari eta lankidetzari instituzio-maila ematea, Jaurlaritzarekiko elkarriketari dagokionez, biztanleriaren sektore horrentzat antolatzen diren arreta, gizarteratze eta bizikaltaterako politikak zehazteko, aplikatzeko eta jarraipena egiteko. Hori da hurrengo legegintzaldiari begira eskatzen duguna, Gazteen Kontseilua eta beste hainbat bezala. Halaber, Jaurlaritzaren eta adinekoen Kontseiluaren arteko elkarriketa-mahai bat sortzea eskatzen dugu, ahalik eta kontsentsurik handienak lortzeko politiketan.

3.2 Adinekoen arazoak Etxebizitzen arloan

HITZAURREA:

Etxebizitza.- Etxebizitza bihurtzen da aldaketaren paradigma adineko pertsonentzat. Gure ustez norabide-aldaketa handia egin behar da, egungo politika, gai honi dagokionez, oso eskasa baita gure irudiko, erreferentzetat hartzen bada mendekotasun arazoak dituztenen etxebizitzaren egokitzapena aldundien aldetik.

Zahartze aktiboko planean jasotako ekintzak:

Etxebizitza eta ingurunea prestatzea bizitza osoan haietaz gozatu ahal izateko

Jaurlaritzari eskatuko dizkiogun ekintzak:

- Etxebizitzaren eta inguru hurbilaren diagnostiko goiztiarra egitea, pertsonen beren etxeetan jarraitzeko izaten duten desioa gauzatu ahal izateko.
- Orientazio eta aholku zerbitzuak sortzea, ohiko etxebizitzaren bideragarritasunaren inguruko erabakiak hartzen laguntzeko, etorkizunean laguntza horren beharra sortuko balitz ere.
- Etxebizitza eta inguru lagungarrien egokitzapenari eta eraikuntzari buruzko Gida bat egitea, diseinu unibertsalaren ikuspegitik.

II. ERANSKINA

MANUEL MERINO PASTORREN HITZALDIA, LARES EUSKADI

Lares Euskadi ordezkatzuz nago hemen, Mendekotasuna duten adineko pertsonen arretako irabazi-asmorik gabeko zentroen elkartea.

31 erakunde biltzen dira bertan, hiru lurraldeetakoak. 3.400 egoitza-plaza eta eguneko zentroetako 300 plaza. 2.000 profesional plantillan eta 500 boluntario baino gehiago.

Erakunde horiek historikoki sortu dira erantzunik ez zuten gizarte-arazoei aurre egiteko, eta orain, Europako jarraibide eta kontratazio-legeen ondorioz, praktikan gainerako operatzaileen maila bereko trataera dute, gizarte-zerbitzuen prestazio finantzatuaren mundu zabalean. Auzi horren inguruan, Lares Euskadi erakundeak, Sareen Saretik, hainbat proposamen egin dizkie legegileei, Hirugarren Sektorea bereizi eta lehenetsiko duen "Itun Sozial" baten beharra azalduz.

Ordezkatzen ditudan erakundeak irudikatzeko, hiru ideia ekarri nahi ditut hona:

- Lares Euskadiko erakundeok ez gara, eta ez dugu gure burua halakotzat, gora doan merkatu bateko operadore etorri berriak. Hirugarren Sektoreko beste erakunde batzuekin batera, gizarte inplikatu, proaktibo, solidario eta sentibera egituratu nahi dugu.
- Guk aurrera daramagun egoitza-ereduak, homologazio publikoa eta kalitate egiaztatua izateaz gain, bizitza pertsonal eta komunitarioa eramateko proiektuak proposatzen dizkie zaintzen ditugun pertsona ahulei, beren ibilbide pertsonalari jarraitutasuna emanez, ez hura apurtuz, osatu gabe baitago oraindik.
- Giza faktorea funtsezkotzat jotzen dugu, giza baliabideetan inbertitzea, zaintzaileak diren pertsonen zaintza zainduz, eta balioak landuz.

Ondoren, orain arte esandakoak Hirugarren Sektore osoak partekatzen dituela ziur izanik, aukera baliatu nahi dut zenbait kezka eta egonezin azaltzeko. Euskadiko adineko pertsonen egoitzen sektoreak, gure iritziz, behar du, arautuko duen Egoitzei buruzko Dekretuaz gain -dagoeneko abian da-, hiru lurralde historikoetan egituratzeko ahalegin bat egitea. Hona hemen, gure ustez, moldatu beharreko zenbait alderdi:

- Tarifa publikoen desberdintasuna, eta are tarifen egituraketaren desberdintasuna ere, lurralde historikoaren arabera.
- Itun desberdinen ikuspegi eta hedapen desberdinak.
- Beharrezko langileen ratioak, eta langile kualifikatuen beharrak, artatzen ditugun egoera zailei behar bezala aurre egiteko.
- Egoitza-sistemara hurbiltzen diren pertsonen profil berriak (halabeharrez "adinekoak" izan gabe), haiek ere trataera espezifiko behar dutelako.
- Egituratu beharreko egoitza-sisteman zenbait zentrozen espezializazioa komeni den aztertu beharko litzateke, eta zentro batzuetan unitate espezifikoak antolatzea ere bai.
- Egoitza-sistema behin betiko egokitzea eremu soziosanitario gisa.
- Zorrotz aplikatu beharko litzateke zaintzaren pertsonalizazioaren printzipioa, eta halaber "zaintzaren jarraitutasuna eta progresibotasuna", izan ere, horrek saihestuko litzuke, besteak beste, lekualdatze mingarriak eragitea itundutako plazak esleitzean.
- Lan-arlo konplexua eta istilutsua da, maiz, negoziazio-prozesuetan arduradun publikoek erakutsitako jokabideen ondoriozko ezin ulertuengatik.

- Eta abar.

Alderdi horiek, eta aipatu ez diren beste hainbeste dira, gure ustez, Euskadiko egoitza-sistema egituratzeko proposamen horretan aintzat hartu beharrekoak.

Azaldutako horiek hutsuneak dira, baina ondo gogoan dugu sistema oso baten zati direla, eta sistema hori, alderdi askotan eta neurri handi batean, estatuko beste erkidegoetako sistemen gainetik dagoela.

Azkenik, berretsi nahi dut gure proposamena “elkarriketa zibilerako”, planteatu ditugun auzi guztien azterketan eta konponbidean parte hartzeko eta gure ekarpena egiteko gogoia.

III. ERANSKINA

MIKEL MALKORRA OTXOTORENAREN HITZALDIA, ELKARTEAN erakundea

Lehenik eta behin, Lehendakariari Elkarriketa Zibilerako Mahaira etorri izana eskertu nahi diogu, erakusten baitugu Euskadiko gizarte-politiken aldeko konpromisoa eta Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeekiko atxikipena.

Elkartean (EAEko desgaitasun fisikoa duten pertsonen konfederazio koordinatzailea) erakundeak desgaitasun fisikoa duten Euskadiko 16.000 lagun ordezkatzen ditu, baina erakundearen jardura biztanleria osora zabaltzen da, izan ere, desgaitasuna duten pertsonen eskubideen zabalpenean eta defentsan egiten dugun lanaz gain, gure helburu nagusia baita gizartearen eraldaketa eta aukera-berdintasuna bermatzea.

Desgaitasunaren arloko politiken ikuspegitik, adierazi nahi dugu beharrezkoa dela aurrera egitea ikuspegi komunitarioan, normalizazioaren printzipioan oinarrituta, batez ere ondoko eremu hauetan:

- Hezkuntza inklusiboa, izan ere, gaur oraindik ere badiarelako gaintitu beharreko trabak, desgaitasuna duten pertsonen hezkuntzarako eskubidea egiaz egikaritu dezaten, gainerako herritarren baldintza berdinetan. Horretarako, euskal hezkuntza-sistema diseinatzeko arestian aipatutako prozesuan era aktiboan parte hartzeko gogo eta prestasun osoak adierazi nahi ditugu, hezkuntza erabat inklusiborako bidean aurrera egiteko.
- Enplegu arrunta. Era berezian kezkatzen gaitu enplegu arrunta dela-eta desgaitasuna duten pertsonen bizi duten egoerak, indarra duten politika publikoak argi eta garbi orientatuta daudelako enplegu babestua finkatzera eta indartzera. Enplegu babestuaren balioa eta beharra onartuta ere, batez ere zenbait kolektiboren kasuan, ezinbestekoa jotzen dugu EAEn desgaitasuna duten pertsonak laneko merkatu arruntera iristeko Plana (2004-2006) egitera bultzatu zuen espiritua berreskuratzea, hala nola desgaitasuna duten pertsonen eskubideen Konbentzioaren printzipioak ere, hark aitortzen baitzuen *“Desgaitasuna duten pertsonen beren bizimodua ateratzeko eskubidea dute, berek aukeratutako edo onartutako lan bat eginez, beraientzat irekiak, inklusiboak eta eskuragarriak diren laneko merkatu eta inguruneetan”*.
- Bizimodu independenteak. Ezinbestekoa jotzen dugu ikuspegi komunitarioa eta ohiko ingurunean mantentzea, desgaitasuna duten pertsonen bizi-proiektuen diseinuan eta garapenean, eredu hori lehenetsiz instituzionalizatzearen gainetik. Ildo horretatik, orain asko ez dela Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko ordezkariari helarazi genien ez genuela ontzat jotzen desgaitasun fisikoa duten pertsonen bizimodu independenteak sustatzeko programak baztertu izana Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen Zorroaren behin betiko bertsioetik, izan ere, kolektibo horrek lideratu ditu baliabide horiek eta haietarako profil egokiena du, indarra duen arautegiaren arabera. Beraz, baliabide horiek onartu ez zaizkienez desgaitasun fisikoa duten pertsonen, eskubide subjektibo gisa, lehenagoko zirriborroetan hala aurreikusten baziren ere, Zorroaren garapenean horiek jasotzeko eskatzen dugu (Gizarte Zerbitzuen Mapa, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa, etab.).

Era berean, zurekin partekatu nahi dugu gure kezka irisgarritasunaren sustapenera orientatutako politiken eta neurrien oraingo egoeraren inguruan. EAEn aukera-

berdintasuna bermatuko zuen gizarte irisgarria lortzeko bidean eraginkortasunez aurrera egiteko arautegi-markoa ezarri zen, Irisgarritasunaren Sustapenari buruzko 1997ko Legea eta haren garapenerako 2000. urteko arautegia onartuta. Hala ere, gaur ikusten dugunez, arazoa ez aurrera ez atzera geratu da, eta beharbada atzera egin da modu larrian, eta horregatik beharrezkoa da irisgarritasunaren arloko politiken bultzada berreskuratzea.

Beraz, ordezkaritza politiko eta instituzionala duzun aldetik, eskatzen dizugu irisgarritasun unibertsalaren aldeko diskurtsoa lideratu dezazun, herritar guztien eskubideen ikuspegitik, eta ez desgaitasuna duten pertsonen ikuspegitik, auzi honen inguruan gizartearen konpromiso ahalik eta zabalena lortzeko. Zahartze Aktiboko Estrategia edo Euskadi Lagunkoia proiektuak, esaterako, berretsi egiten dute irisgarritasunak herritar askorengan duela eragina eta, beraz, lehentasunez jaso behar dela politika publikoen diseinuan eta egikaritzan, ikuspegi transbertsaletik eta unibertsaletik.

Era berean, ezinbestekotzat jotzen dugu Administrazioaren eta desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzeko dituzten erakundeen artean prozesu bati ekitea, diagnostiko partekatu bat lortu ahal izateko, gaur egun zertan diren irisgarritasunaren sustapena eta zenbait arlotan ikusten diren hutsuneak (hiri-ingurunea, eraikuntza, garraioa, komunikazio- eta informazio-sistemak, eta abar), era horretan, aurrera egiteko neurriak ezarri ahal izateko, tartean dela marko juridikoaren eguneratzea. Horrenbestez, bultzada berria emateko aukera sortuko litzateke auzi honen konponbidean, desgaitasuna duten pertsonen eta, oro har, herritar guztien oinarritzko eskubideetan eragina baitu, eta, beraz, bikaintasuna helburu izan behar baitu.

Amaitzeko, berretsi nahi dugu desgaitasuna duten pertsonen eskubideetan eta bizikaltatean eragina duten politiken eta neurrien diseinuan eta garapenean Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan aktiboan aritzeko dugun konpromisoa, era horretan aurrera egiteko, gizarte justuago, inklusiboago eta irisgarriago baterantz.

IV. ERANSKINA

PABLO GONZÁLEZ GUTIÉRREZEN HITZALDIA, FEVAS ERAKUNDEA

Eskerrik asko lehendakari, Elkarrizketa Zibilerako Mahaian parte hartzeko gonbita onartu izanagatik, zuzentzen duzun gobernuak gizarte-gaietan duen interesaren erakusgarritzat hartzen baitugu.

FEVAS, Adimen edo garapen urritasuna duten pertsonen eta haien familien Elkarteek Euskal Federazioaren ordezkaria nauczue. Federazio horretan adimen-urritasuna duten pertsonen familien hamahiru elkarte eta erakunderik garrantzitsuenak biltzen dira, guztira 12.000tik gora familia, 1.400 boluntario eta 2.400 profesional.

Ez ditut guztiak aipatuko, lurralde bakoitzeko zaharrenak bakarrik, adibide gisa: Apdema Araban, Gorabide Bizkaian edo Atzegi Gipuzkoan, elkarte horietatik beste hainbat sortu zirela, urteen joanean, lurralde bakoitzean, barnean jasoz garun-paralisia edo espekto autista arloetako espezializazioak.

Apaltasunez bada ere, harro gaude gure erakundeetan egiten dugun lanaz, urritasuna duten pertsonentzako eta haien familientzako mundu adeitsuagoa eta, gure ustez, pertsona guztientzako ere adeitsuagoa egiten lagundu dugulako.

Lagundu dugu, baita ere, administrazio publikoekiko lankidetzan, gaur loratzen ari diren gizarte-zerbitzuetako legeak sortzen eta errotzen, besteak beste, Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren Dekretua (iragan urriaren 6ko Gobernu Batzarrean onartua) edo Hirugarren Sektorearen Legea.

Urrats garrantzitsuak dira, beharrezkoak eta txalotzen ditugunak, gogoan izanik urrats bat gehiago dela, osorik eraikitze dagoen eta eduki kualitatibo hornitu behar den zerbaiten bidean. Zein dira, urratsez urrats egiten ari den eraikuntza horretan, adimen-urritasunaren eremuan sortzen diren kezkak?

Hiru ideia azpimarratuko genituzke:

1.- Bizi-kalitatearen aldeko apustua. Mendetasun-egoeran dauden pertsonen zaintzari eta haien autonomia pertsonala sustatzeari buruzko legeak indarra hartu izanak eragin paradoxikoa izan du, alegia, funtsean pertsonen bizitzaren azken uneetarako pentsatutako lege bat aintzat hartu dela, erreferente gisa, adimen-urritasuna duten pertsonen arlorako.

Izan ere, ez dute antz handirik, egoeraren eta bizi-proiektuaren ikuspegitik, egoera batek eta besteak: bat une batekoa da, eta bestea bizitzaren ibilbideari dagokiona. Arriskua da esku-hartzeko eredu aringarriak eta oinarritzko zaintzari dagozkionak aplikatzea, saiatu beharrean, pertsonaren gaitasunen arabera, haien bizi-kalitatea eta hazteko aukerak lehenesten dituzten ereduak aplikatzen.

2.- Bigarrenik, eta aurrekoarekin lotua, gizarte-zerbitzuen sistema bat eratze aukera eta beharra dugu, adimen-urritasunaren kasuan, behinik behin, elkarrizketan eta laguntzan oinarritua, adimen-urritasuna duten pertsonen berek aukeratu dezaten beren bizimodua, eta ez honako edo halako langile teknikariek agindu diotena.

Adimen-urritasuna duten pertsonen familiei laguntza ematen eta gure arloan autodeterminazioa lantzen eskarmentu handia duen pertsona batek honako galdera hau egin ohi digu: Bizitza autobusa balitz, zer izan nahi zenuke: gidari edo bidaiari?

Kezka da ea adimen urriko pertsonen beren bizitzaren autobusaren gidariak izateko aukera eskaintzeko gauza garen, behar diren laguntzak emanez, izan ere, laguntza horiek gutako gehienok ere behar izaten baititugu.

3.- Familiak kezkatzen dituen hirugarren auzia da beren elkarteei ematen zaien eginkizuna, bai hurbiltasunaren eremuan, beharrei antzemateko eta erantzuna sortzeko gaitasunei dagokienez, eta bai zentroen eta zerbitzuen kudeaketari dagokienez.

Adimen-urritasunaren eremuko elkarteon ustez, balio handikoa da zerbitzuen kudeaketan erabiltzaileek eta haien familiarrek parte hartzea, bai kudeaketaren kalitateari ekarpena eginez, bai ekarpen hori gizarte parte-hartzaileago eta egituratuago batera zabalduz. Horregatik ematen diogu garrantzi handia hirugarren sektorearen lege-proiektuari.

Eskerrik asko berriro.

V. ERANSKINA

PABLO MORATALLA SANTAMARÍAAREN HITZALDIA, EHLABE Erakundea

EHLABE - Enplegu Babestuaren Euskadiko Erakundeen Elkartean, 12 erakunde biltzen dira, gizarte-ekimeneko enpleguaren arlokoak eta hiru lurraldeetakoak. Orain dela 30 urte luze hasi ziren enplegu- eta lanbide-zerbitzuak eskaintzen nolabaiteko desgaitasuna duten 10.000 inguru pertsonari.

Lehendakariak bertatik bertara ezagutzen duenez (gogora dezagun: legegintzaldiko lehenengo ekitaldian bisita egin zion Lehendakariak F. Lantegi Batuak gure erakundeari, aitortza eginez gure sektoreari, bereziki, eta ekonomia sozialari, oro har), bai eta Enpleguako sailburuak ere (orain asko ez dela egin zigun bisita...), gure erakundeen helburua kolektiboarentzat aukerak sortzea da, alegia, azken finean, laneko eta gizarteko ibilbideen kudeatzaile globalak gara.

Bestalde, azpimarratu nahi dugu enplegarritasun-zerbitzuetako asko (laneko orientazioa, prestakuntza, Laguntzarekiko Enpleguaren metodologiaren araberako enplegu arrunta, etab.) Lanbide-EEZrekiko lankidetzat estuan kudeatzen ditugula.

30 urtez lanean aritu ondoren, Euskadiko gizarte-ekimeneko enplegu babestuaren sektorea (EHLABE) erreferentea da, bai estatu mailan, bai Europan, batez ere enplegu-aukera urrirenak dituzten pertsonen kolektiboaren enpleguari dagokionez (adimen-urritasuna...). Gaur Euskadi:

- Lehenengo lekuan dago desgaitasun aitortua duten pertsonen enpleguari dagokionez, zailtasun bereziak dituztenak barne
- Langabezia-tasarik baxuena du
- Gizarte-ekimeneko enplegu babestuak protagonismo handiena duen autonomia-erkidegoa da

Hala ere, desgaitasuna duten pertsonen enpleguak egoera txarrean jarraitzen du, batez ere, gainerako biztanleriarekin alderatzen badugu (jarduera-tasa, enplegu-tasa) eta beraz, beharrezkoa da ahaleginak egiten jarraitzea eta hirugarren sektoreko desgaitasunaren erakunde guztien lankidetzat estuan jardutea administrazio publiko guztiekin (udalak, aldundiak, Eusko Jaurlaritza eta Lanbide-EEZ).

Illo horretatik, lehentasunezkoa jotzen dugu enpleguko politika aktiboaren Euskal Arautegia ontzea eta onartzea, modu integralean biltzeko desgaitasuna duten pertsonen kolektiboarentzako enplegarritasunerako politikak eta programak. 2012ko maiatzean Eusko Legebiltzarrak aho batez onartu zuen legez besteko proposamen baten ondorioz, Eusko Jaurlaritza osatu duten exekutibo eta enplegu-sail desberdinetatik, Dekretu bat lortzeko zenbait hurbilpen, balioespen eta zirriborroren bat ere egin izan dira.

2011n enpleguko politika aktiboak eskualdatzeko lortutako akordioa aprobetxatuz, Euskadiren esku uzten baitu enpleguaren eta prestakuntzaren arloko politikak proposatu, ezarri, kudeatu eta gauzatzeko eskumena, beharrezkotzat jotzen dugu EAEn eratzea arautegi propioa (estatu mailan aitzindaria izango litzateke), gure errealitatea kontuan hartuko duena. Haren helburua izango litzateke, kolektiboaren enplegarritasun-programa desberdinak uztartzea, babestea eta egokitzea ez ezik, lehentasuna eta balioespena

ematea hirugarren sektoreko erakundeei, haren lanari eta enplegarritasun-programen kudeaketan (administrazio publikoekiko lankidetzan estuan) duten eskarmentuari.

Azken finean, desgaitasuna duten pertsonen laneratzearen eta gizarteratzearen arloan Euskadiren aitzindaritzan mantentzeko gogotik, urratsak eta ekimenak antolatu behar ditugu (gobernutik eta sektoretik) gaur dugun marko juridikoaren baitan.

VI. ERANSKINA ESTEBAN RIVAS CALZADAREN HITZALDIA GIZATEA ERAKUNDEA

Esker ona lehendakariari etortzeagatik

- Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiari eta Hirugarren Sektore Sozialari aitortza eskaintzen dielako.
- Mahaian ordezkatura dauden sareen kezkak azaldu eta entzuteko aukera ematen digulako.

GIZATEAren aurkezpena. Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkartea. Zenbait zertzelada. 2007

Zer dira laneratzeko eta gizarteratzeko enpresak?

Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresak sortu ziren lan-merkaturako atea zabaltzeko gizartean desabantailan edo bazterketa egoeran dauden kolektiboei, akonpainamendu-aldi baten ondoren eta lanpostu baten bitartez... Irabazi-asmorik gabeko erakundea da.

Zenbait datu:

- 45 enpresa:
- Araba: 9
- Bizkaia: 30
- Gipuzkoa: 6
- Sektoreak: Dibertsitatea
- Kontrataturako pertsona-kopurua: 975
- Gizarteratze edo laneratze bidean dauden pertsonak: 570
- Negozio-bolumena: 24.700.000 €

Kezkak:

- Krisia, langabezia eta bazterketa garai hauetan, horiei aurre egiteko indartu behar dira lana bizkortzeko sistemak, esaterako, laneratzeko eta gizarteratzeko enpresak (inbertsioen laguntzak berreskuratzea, laneratzeko enpresak, Lanbide eta gizarte-zerbitzuen arteko lotura hobetzea, enpresa horiek ezagutarazteko kanpainak...).
- Horretan ari gara Lanbiderekin lanean.
- Aldez aurretik esan behar dugu harreman ona eta erraza dela Gizatearen eta Lanbideren artean, eta hain zuzen ere, Gotzone Sagarduy zuzendariarekin.
- Irailaren 9ko 31/2015 Legeak, Autoenpleguaren inguruko arautegia aldatu eta eguneratzen duenak, eta lan autonomia eta ekonomia soziala sustatzeko neurriak ezartzen dituenak, laneratzeko enpresak sustatzeko neurri garrantzitsuak planteatzen ditu, gure ustez gogoan hartu behar direnak Eusko Jaurlaritzan, eta bateragarriak izan daitezke Gizatearen eta Lanbide/Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzarekin:
 - Merkatu publikoaren gordailua: laneratzeko enpresek administrazio publikoen kontratuen gordailu baterako sarbidea izango dute, muga ekonomikorik gabe. Legeak ezarritakoaren arabera, instituzioek beren aurrekontuetan merkatu-gordailurako portzentaje bat edo kopuru bat (orain da unea 2016ko aurrekontuetarako) ezarri behar dute.
 - Laneratzeko enpresetan beren ibilbidearen amaierara iritsi diren pertsonak kontratatzen dituzten enpresentzako hobariak. Gure

ustez Gizatearen eta Lanbideren arteko lankidetza egin beharko litzateke bitartekaritzako ohiko enpresetan hobari horiek ezagutarazteko.

- Laneratzeko enpresei aitortzea Interes Ekonomiko Orokorreko Zerbitzu emaileen izendapena. Kontuan izan behar den gauza da, erregulazio autonomiko desberdinetan.

VII. ERANSKINA

GONZALO RODRIGUEZ AGIRREGOITIAREN HITZALDIA, REAS EUSKADI

Esker ona Lehendakariari etortzeagatik

- Euskadiko Elkarriketa Zibilerako Mahaia eta Hirugarren Sektore Sozialari aitortza eskaintzen dielako.
- Mahaian ordezkatuta dauden sareen kezkak azaldu eta entzuteko aukera ematen digulako.

REAS Euskadiren aurkezpena. Euskadiko ekonomia alternatibo eta solidarioko sarea.

REAS Euskadi sarea 1997an sortu zen, eta gaur pertsonen eta haien inguruaren zerbitzuan dagoen ekonomia sustatzen duten 65etik gora enpresa eta gizarte-erakunde biltzen ditu. 2.670 enplegu, milaka boluntario eta lankidetzatza-proiektuei atxikitako pertsonak.

Gutun Solidarioaren 6 printzipioekiko konpromisotik, eta giza garapen jasangarriaren ikuspegitik, gizarte eraldatzeko helburua duten proposamen kolektiboak indartu nahi ditu, eta batez ere, haren ekonomiaren hainbat alderdi: finantzaketa, ekoizpena, merkaturatzea eta kontsumoa.

Reas Euskadi zenbait lan-ildotan ari da lanean:

- Herritarren sentsibilizazioa eta ekonomia alternatiboa eta solidarioaren sustapena.
 - Ekonomia solidarioarekin lotutako barneko nahiz kanpoko prestakuntza.
 - Enpresa solidarioen merkaturatzeari eta hedapenari laguntzea eta bestelako zerbitzuak ematea, esaterako Azoka soziala ekimena.
 - Tresnak sortzea eta erabiltzea egiteko auditoietza soziala.
 - Finantzaketa-tresna etiko eta solidarioak laguntzea eta zabaltzea, batez ere FIARE Banku Etikoaren proiektua.
 - Erosketa publiko arduratsua sustatzea, klausula sozialak eta enpleguko merkatu babestuak.
 - Institutuzio publikoekiko solaskidetzatza laneratze eta gizarteratze gaiei buruz, gizarte gaiei buruz eta ekonomia sozial eta solidarioari buruz.
-

Zenbait kezka, etorkizun hurbilerako erronka direnak eta mahai honetan partekatu nahi ditugunak:

- Berehala ireki behar da gogoeta etiko eta solidarioa, krisi-une hauetan ekonomia orokorra orientatzeko, batez ere ekonomiaren sustapenerako politika publikoak.
 - Ekonomia sozial eta solidarioari laguntzeko programa zabalagoak garatzea, tokiko garapena eta gizarte-kohesioa laguntzen duten jarduera ekonomikoen sustapenaren berme gisa. Ildo horretatik, ekintzailatza eta ekonomiaren sustapenerako programetara eraman behar dira ekonomia solidarioko enpresak eta erakundeak.
 - Gizartetik baztertuta dagoen edo horren arriskua duen biztanleria langabetua era berezian babestuko duen enplegu-politika bat bultzatzea. Ildo horretatik, orientazioko, formakuntzako eta bitartekaritzako gailuak eta deialdiak era berezian zaintzea, batez ere zainduz beharrik handiena duten biztanle langabetuek horietara iristeko duten modua, eta kontuan hartuz arlo horretan lanean ari diren hirugarren gizarte-sektoreko erakundeen ezegonkortasun-egoera.
 - Ekonomia solidarioaren jardunbideen garapenari laguntzeko neurriak sustatzea; kasu askotan, azken urteetan Eusko Legebiltzarrean onartutako ekimenen bultzada izan dute: kontratazio publikoetan klausula sozialak sartzea, Banku Etikoa Fiare, merkataritza bidezkoa, tokiko nekazaritza eta merkaturatzeko zirkuitu motzak, burujabetza energetikoa eta energia berriztagarriak...).
-

VIII. ERANSKINA MANU MORENOREN HITZALDIA, EAPN EUSKADI

Europako Pobreziaren eta Giza Bazterketaren Aurkako Euskadiko Sarean biltzen dira:

- 40 erakunde, hiru lurraldeetan.
- 100.000 pertsona artatzen ditu.
- 3.000 boluntario eta profesional.

Pobrezia eta bazterketa ezabatzeko lanari atxikitako erakundeak eta pertsonak.

Lotura du estatuko sarearekin eta Bruselan egoitza duen Europako sarearekin.

Euskadin hiru lan-ildo daramatzagu:

- Herritarren sentsibilizazioa
- Eragin politikoa
- Sareko lana, bai barnean (erakunde bazkideen artean) bai gure inguruko beste sare eta eragile batzuekin.

GURE LANILDOAK / GAURKO KEZKAK

(Erronka eta xede hauek, gure ustez, EAPNrenak ez ezik, gizarte osoarenak ere badira)

Babes- eta gizarteratze-sistema, gizarte-kohesioa eta kalteberatasun eta bazterketa egoera larriena duten pertsonen eskubideak.

Gizarte-babeserako euskal sistema oso ezaguna eta aitortua da estatuan nahiz Europan. Hala baieztatzen dute egindako txostenek. Eta hala baloratu zuen, izan ere, EAPN Europaren biltzarrak berak ere, iragan uztailaren 2an, 3an eta 4an bildu baitzen lehendakariak berak inauguratu zuen kongresuan.

Hala ere, azken txostenek ohartarazten dute euskal sisteman atzerapena antzematen dela, batez ere aurrekontuen murrizketen ondorioz.

Horrekin batera, gehiago dira Euskadin pobrezia eta bazterketa egoeran dauden pertsonak. Pobrezia eta gizarte-bazterketaren adierazleak jasotzen hasi zirenetik, maila gorenera iritsi dira 2014an.

Euskadin, AROPE¹ adierazlea erabilita (Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkestaren 2014ko² datuen arabera), pobrezia eta bazterketaren arriskuan dagoen biztanleria handitu da, 2008an % 17,9 izatetik 2014an % 22,7 izatera. 385.087tik 489.447ra, 104.360 pertsona gehiago.

¹ **AROE adierazleak, At Risk Of Poverty and/or Exclusion**, Europar Batasunak proposatua, pobrezia edo bazterketaren arriskuan dagoen biztanleriaren portzentajea jaso nahi du.

Gizarte-bazterketa dimentsio anitzeko kontzeptua da, baina adierazle bakarrean bildu behar ziren, modu eraginkorrean, kalteberatasun-egoerak, non pobrezia alderdi garrantzitsuetako bat gehiago den, besterik ez. Horretarako sortu zen AROPE adierazlea.

² Pobreziari eta gizarte-desberdintasunei buruzko inkesta. Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila Eusko Jaurlaritza.

Errealitate horren aurrean, gure apustua da babes-sistema indartzea. Datuek eta gure historiak esaten dute, eta ondo gogoan hartu behar dugu, hazkunde ekonomikoak eta enpleguak, berez, haiek bakarrik, ez dutela konponduko Euskadiko pobrezia eta bazterketaren arazoa.

Sistema bi ikuspegitatik indartu behar da: errenten hedapena areagotuz, hau da, tresnatik - DBE-, eta beste alde batetik, Legearen xedea den gizarteratzetik. Ahalegin handia egin da alderdi materialean, ekonomikoan, prestazioan (eta hemendik aitortu behar dugu sailak eta Lanbide hobekuntzan egin duten ahalegina eta koordinazio-lana) baina legearen bigarren partea zokoratuta geratu da: ... "gizarteratzeko".

Horretarako, hauek proposatzen ditugu:

- Etxegabetasuna ezabatzeko euskal estrategia sortzea eta garatzea. Euskadik ezin du onartu 2.000 lagun inguru etxerik gabe egotea.
- Politikak inplementatzea familiaren eta haurren ikuspegitik eta pobrezia ez partzializatzea. Ezin dugu begirada jarri "modako diren" kontzeptuetan, esaterako haurren pobrezia, pobrezia energetikoa... Jende guztiak ulertzen du ez dagoela haur pobrerik familia aberatsetan.
- Gizarteratzeko programak ezartzea eskubideen klabeen, gizartean parte hartzeko eskubidetik, enplegua izan nahiz ez izan. Herritarren garapena sustatuko duten programak, pertsonen sustapena.

Babes-sistemarekin lotuta, ezin dugu ahaztu azken aldian erasoaldi bat ikusi dugula, hura ahultzeko eta haren onura lortzeko trabak jartzeko. Euskal gizartearen gehiengoaren elkartasuna ikusi dugu sistemaren alde jokatu duelako: *D+Eskubideak gehi* kanpainaren aldeko mobilizazioan; eta legea gogortzearen aurka azaldu zirelako legebiltzarreko indar gehienak, eta Eusko Jaurlaritza bera ere bai.

Azkenik, bi proposamen gehiago:

- Beharrezkoa da analisi bat, errealitatearen azterketa iraunkor bat, gizarteratzearen eta gizarte-kohesioaren ikuspegitik. Hau da, garapen ekonomikoaren adierazleetatik ez ezik, pertsona ahulenen eta haien eskubideen ikuspegitik ere.
- Pertsonak beren gizarteratze-prozesuetan parte har dezaten sustatzea. Akonpainamenduan oinarritutako harremana ulertzeko beste modu berri bat errealitatea bihurtu nahi dugu, "pertsonen buruz hitz egitetik" igaroz "pertsonekin hitz egitera".